

Bilbon, 2014ko abenduaren 1ean

IZAERA JURIDIKOAREN ALDAKETA

Eguerdian, fusio eskualdatze-eskritura sinatu dugu, ondorio guztietarako; sinadura horren bidez, Bilboko elizbarrutiak sustatutako EDE Fundazio kanonikoa Ostargik bultzatutako EDE Fundazio zibil bihurtu da.

Albiste hau 1976tik lanean ari direnen aitortza gisa hartu nahi da, euren konpromisoaren eta egiten jakitearen bidez, EDE Taldearen hazkunde kuantitatiboaren eta kualitatiboaren alde egin baitute. **Orain, Ostargi organismo sustatzaile berria “etxeko lagunek” osatzen dute**, erakundearen programak, zerbitzuak eta jarduerak garatzen dituztenak. EDE Fundazioko gainerako kideekin batera, bere ondare ordainezina osatzen dute, eta bere etorkizunaren berme onena ere badira.

Erakundearen identitatearen aldaketa bizi dugun une honetan, gure balioak **berretsi** nahi ditugu, **gure identitatea ez ezik, gure misioa eta zerbitzuak ere osatu baitituzte**, beti ere, esku-hartze sozialean ari diren lagun eta entitateen alde.

Publikoki aitortu eta eskertu behar dira, bai Ricardo Blazquez jauna, zein Mario Iceta jauna, bai eta euren gobernu-lantaldeak ere, prozesu honetan erakutsitako eskuzabaltasunagatik, izan ere, eskuzabaltasun hori gabe, ezinezkoa izango zen prozesua abiatzea, ezta amaitzea ere.

Badakigu aurrean, aukeraz betetako garai berria dugula, eta garai hori baliatzen saiatuko gara.



Sinadura: F. Javier Vitoria
EDE Fundazioaren presidentea